

Atzo, otsailak 23, mahai negoziatzaile bat burutu zen Haurreskolak Partzuergoko Hezitzaileen eta kudeaketa langileen lanpostuen zerrendak lantzeko. Enpresak alde aurretik bidalitako dokumentuen gainean aritu ginen. Materialak osatu gabe zeuden eta hainbat momentutan zehaztapenak falta ziren, baina saiatu ginen informazioa lortzen. Hauek dira, momentuz, bileratik atera ditugun ondorioak:

Hezitzaileen lanpostuen zerrendaren harira, zera esan nahi dugu:

- Behar diren lanpostu kopurua kalkulatzeko erabili nahi duten ratioa 5-5,25 hurrekoa da hezitzaileko .
- Lan erreformak ahalbidetzen dituen aldizkako lan-kontratu finkoak egin nahi ditu lan metaketak egin beharrean. Lan prekarioagoak sortzea esan nahi du honek.
- 2015etik gaur egun arte 1136 lanpostuekin osatu dute hezitzaileen zerrenda. Aurten, Europatik eta Madrildik behin-behinekotasun tasa %8ra jaisteko agindua datorrela aprobetxatuz, Haurreskolak Partzuergoak eta Hezkuntza Sailak lanpostu kopurua murrizteko erabili nahi du.
- Enpresak kalkulatu du, 20/2021 Legean oinarrituz 323 hezitzaile direla hiru urtetik gorako zerbitzuak eman dituztenak Haurreskolak Partzuergoan eta beraien plaza amortizatuz gero kalte ordainak jasotzeko eskubidea izango luketenak.

Beraz, argi dago Haurreskolak Partzuergoak hezitzaileak finkatu beharrean, kaleratu egin nahi dituela. Legearen interpretazio interesatua egin nahi du, langileak kaleratu nahi ditu gero lan prekarioago bat sortzeko asmoz.

Kudeaketa langileen lanpostuen zerrendaren harira:

- LBBn, Kudeaketa Langileen lan balorazio batzordean, egindako lanak ez dira barneratzen enpresak egiten duen lanpostuen zerrendako proposamenean. Besteak beste, euskara eta berdintasun teknikariak, informatikoak, arreta goiztiarreko teknikaria ez dira barnebiltzen eta formazio departamentua ez da indartzen arduradun batekin.
- Ez dira parekatzen langileen mailak Eusko Jaurlaritzakoekin. Kudeaketa langileen lanpostuak sortu eta hornitzeko 34 hezitzaile lanpostu amortizatu nahi dituzte.
- Langileen behin-behinekotasun tasa %100koa da eta ez dute zehazten langileak finkatzeko prozesurik ezta kopururik ere.

STEILAS sindikatuak, langile eta lanpostu guztiak beharrezkoak direla argi du. Haurreskolak Partzuergoak zerbitzu publikoa eta doakoa izan behar du (8330 ikaspostuak) eta hori egi bihurtzeko lanean jarraituko dugu. Bitartean, eskola pribatuek, jasotzen duten diru laguntza publikoak bertan behera geratu behar dira. Era honetan, gaur egun dauden langile guztiak eta gehiago beharrezkoak izango lirateke. Beraz, Eusko Jaurlaritzari bide honetan urratsak ematea exijitzen diogu.

Ez dugu lanpostu bat bera ere suntsitzea onartuko!